

# ZENBAKIAK ASMATZEN

Testua: GIANNI RODARI

Irudiak: ALESSANDRO SANNA

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoi gogorrean egina. 22 x 30 cm. 32 or. 15 €.

**Zenbakiak asmatzen** (euskara)

ISBN 978-84-9172-012-6. Gaur egungo klasikoak.

**Inventem els números** (katalana)

ISBN 978-84-16804-37-5. Clàssics contemporanis.

**Inventando números** (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-61-1. Clásicos contemporáneos.

**Inventando números** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-631-0. Tras os montes.

**Inventando números** (portugesas)

ISBN 978-989-749-095-8. Clássicos contemporâneos.

–ASMATUKO DITUGU ZENBAKI BATZUK?

–EDERKI, NI HASIKO NAIZ:

IA BAT, IA BI,

IA HIRU, IA LAU,

IA BOST, IA SEI.


Kontakizun zoragarri hau Gianni Rodariren *Telefonozko ipuinetako* bat da, hau da, haurrentzako literaturaren eta pedagogiaren berritzaile handiarena.

Bianchi jaunak, alabari gauero ipuin bat kontatzeko hitza bete nahian, eta elkarrengandik urruti bizi direnez, telefonoz deitzen dio, eta hain dira goxoak eta onak istorioak ezen telefono-zentraleko langileek aditzen baitiete.

Josteta ere baden elkarrizketa honetan, galdera arrunt eta harrigarriak eta xebreak nahasten dira: zein den bi punturen arteko distantzia, nolako pisua duen malko batek edo nolako luzera duen ipuin batek.

Erantzunak graziaz, talentuz eta irudimenez beteak daude, hots, Rodariren ezaugarriez (“Ipuinak nahasten!” liburuan bezalaxe), ume irakurleen gaitasunak garatzen laguntzeko ezaugarriez.

Alessandro Sannaren irudi biziei esker, “Zenbakiak asmatzen” ipuinak ezin ahaztuzko nortasuna bereganatzen du, pintzelkadek eta koloreek zifretan oinarritutako formak sortzen baitituzte.



- **Gala:** zenbakiak, balioak, neurriak.
- **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
- **Nabarmenezko modukoak:** elkarrizketa formatua, egokia zenbakiak ikasteko, kontatzeko, zenbakien izenak bihurtzeko, irudimenezko hizketa berria sortzeko; sormen handikoa; [“Ipuinak nahasten!”](#) ipuinaren egile eta irudigile bera (Kalandraka-Pamiela).

## Gianni Rodari

(Omegna, Lombardia, 1920 - Erroma, 1980)

Politikaria, kazetaria, pedagogoa eta idazlea. Andersen Saria jaso zuen 1970ean. Irakasle Eskolan ikasi, eta eskola partikularrak ematen hasi zen. Italiako Alderdi Komunistari loturik, kolaboratzaile aritu zen zenbait egunkarientzat (L'Ordine Nuovo eta L'Unitá), eta haietan haur literatura landu zuen, bere egiazko grina. Errealitatean oinarriturik *Arbolan planeta* egin zuen, baina umorea eta arrakasta gero iritsi ziren, obra hauekin: *Ipuin luzeak irribarre batekin*, *Le avventure di Cipollino* edo *Il libro delle filastrocche*. *Novelle fatte a macchina*, *Telefonozko ipuinak* eta *Jolas egiteko ipuinak* ditu maisu-lanak, herri literaturaren bertsoak egiteko pentsatuak, erakusteko ezen laburtasunez istorio onak sortzen direla eta irakurleari ipuinaren bukaera aukeratzeko bidea ematen diola. Eskoletara bisitak egin eta umeekin lan egin eta gero, *Fantasiaren Gramatika* idatzi zuen (1973); pedagogia garaikiderako aportazio handia, zeinean adierazi baitzuen literaturak iraultzailea eta askatzailea izan behar duela. <http://www.giannirodardi.it>

## Alessandro Sanna

(Nogara, Italia, 1975)

Margolari eta irudigilea. Arte Aplikatuaren graduatua Castelmassako Arte Institutuan (Erroma). Veronako Palladio Institutuan zabaldu zuen bere prestakuntza. Gaur egun Irudigintzako irakaslea da Boloniako Arte Ederretako Fakultatean. 1996az geroztik, haur eta gazteentzako liburueterako irudiak egiten ditu; hainbat pintura erakusketatan hartu du parte. 1999an eta 2001ean Aipamen Berezia izan zuen Chioggia Hiriko Nazioarteko Irudi Lehiaketan. Finalista izan da, 2016an, Hans Christian Andersen izeneko sarian.

<http://www.alessandrosanna.com>